

EUSKARAREN ERAKUNDEA

Leioako Udalaren erakunde autonomoa



Aurrekontua

2024



UDAL AURREKONTUA

Zer da?


Aurrekontua **udal ekonomia eta finantzak urtebetez kudeatzeko tresna da**. Hau da, urteko plan ekonomiko eta finantzarioa.

Zertarako balio du?

Kudeaketa publikorako gakoa da.

Nork onartzen du?

Aurrekontua onartzeko eskumena duen organoa:
Udalbatza, erakunde autonomoen kasuan, berezko Kontseilu Errektoreek onartu eta gero.



UDAL AURREKONTUA

Nola onartzen da?

1. Aurrekontuak prestatzeko, zuhurtzia eta sarrerak eta gastuak egiaz parekatzeko printzipioak bete behar dira.
2. Udal-gobernuak aurrekontuaren zirriborroa prestatu, eta alderdi politikoei ematen die, zuzenketak egin ditzaten. Udalaren Osoko Bilkurak eztabaida egiten du hartaz, eta hasierako onespina ematen dio. Aurrekontua Kontseilu Errektoreetan onartuta dago eta, ondoren, osoko bilkura egin aurretik, udal aurrekontuarekin finkatuko da.
3. Jendaurrean jartzen da 15 egunetan. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsita dagoela jotzen da. Erreklamazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak ebazpena eman beharko du haietaz, hilabeteko epean.


EUSKARAREN ERAKUNDEA

Zer da?

Leioako Udalak erakunde autonomo bat du, Euskararen Erakundea, gaur egun Mastitxu Udal Euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak osatua, Leioan **euskaren sustapenean eta normalizazioan** diharduena.

Zer da erakunde autonomo bat?

Udalak sortutako erakundea da, eta **jarduera edo zerbitzu espezifikoren bat modu deszentralizatuan kudeatzea du eginkizun**. Nortasun juridiko propioa –udalarekiko independentea–, eta bere aurrekontua du, eta baita kudeatzeko autonomia, berezko estatutuek (BAO 182 zk., 2019/18) eta arlo horretan indarrean dagoen legeriak arautzen baitute.



2024eko AURREKONTUA


Udalak urtean zehar izango duen dirua nola gastatuko den planifikatzean datza urteko aurrekontua. Hau da, **sartzen den diruaren eta gastatzen denaren arteko erlazioa** ezartzen du. Gastuak inoiz ez dituzte sarrerak gainditu behar.

Euskararen Erakunde Autonomoak, hurrengo ekitaldirako espero dituen baliabideak, diru-sarrerak, aztertzen dituen agiria da hau, eta bertan, zertan gastatuko diren ezartzen da.

2024

932.810,07€





DIRU SARRERAK 2024

2024ko DIRU SARRERAK

Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera. **Euskararen Erakundearen aurrekontuak hiru kapitulu ditu.**

Kapitulua	2024
3. Tasak eta bestelako sarrerak	46.493,47€
4. Transferentzia arruntak	886.316,60€
GUZTIRA	932.810,07€

2024ko DIRU SARRERAK


3. kapitulua		2024
Euskaltegiko matrikulak		46.493,47€
	TOTAL	46.493,47€

4. kapitulua		2024
Diru-laguntza HABE Euskaltegi		321.273,53€
Udaleko transferentzia		565.043,07€
Euskara Zerbitzurako beste diru-laguntza batzuk		00,00€
	GUZTIRA	977.316,60€

2024ko DIRU SARRERAK

5. kapitulua		2024
Jabetza-errentak		00,00€
	TOTAL	00,00€





GASTUAK 2024

2024ko GASTUAK

Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera. **Euskararen Erakundearen aurrekontuak hiru kapitulu ditu.**

Kapitulua	2024
1. Langile gastuak	802.215,07 €
2. Ondasun korrante eta zerbitzu gastuak	125.095,00 €
6. Inbertsio errealak	5.500,00€
GUZTIRA	932.810,07€

2024ko GASTUAK

1. kapitulua	2024
Langile gastuak (16 langile)	802.215,07 €
GUZTIRA	802.215,07€

2. kapitulua	2024
Bulego-material	4.000,00 €
Energia- hornidura	11.000,00 €
Gas hornidura	9.826,88 €
Publizitatea	8.500,00 €
Garbiketa	74.000,00 €
Programak kontratatzea	00,00 €*
GUZTIRA	125.095,00 €

(* **Oharra:** 2021ean Euskara Zerbitzuaren kudeaketa Udalari eskualdatzen zaio, Kultura Sailari, Politika eta Hizkuntza Programan.

2024ko GASTUAK

4. kapitulua*

2024

(* *Oharra:* gaur egun Udalaren kudeaketan Hizkuntza eta Politika Programan sartzen da, beraz, adierazten diren zifrak informatzeko besterik ez dira:

Euskara sustatzeko bekak eta diru-laguntza lerroak	2024
Euskara ikasteko laguntzak	23.050,00€
Euskara sustatzeko diru-laguntza	15.250,00€
“Euskarazko errotuluak” diru-laguntza	1.050,00€
Komunikabideentzako diru-laguntza	15.000,00€

6. kapitulua

2024

Inbertsio errealak	5.500,00€
GUZTIRA	5.500,00€

The background consists of several overlapping, curved, teal-colored shapes in various shades, creating a dynamic and layered effect. The colors range from a dark, almost black teal to a lighter, vibrant teal. The shapes are irregular and fluid, suggesting movement and depth.

Eranskina

Kapitululuak

DIRU SARRERAK

Nondik datoz?

3. kapitulua: Tasak eta beste diru-sarrerak

Erakundeak herritarrei zerbitzuak emateagatik bildutako diru-sarrerak. Kapitulu honetan lortzen diren zenbatekoak euskara irakasteko ikastetxean ikasleek dituzten matrikulazio-kuoten emaitza dira.

4. kapitulua: Transferentzia arruntak

Batez ere, Leioako Udaletik eta HABEtik jasotako kopuruak, ikastetxean jarduera gauzatzeko.



DIRU SARRERAK

Nondik datoz?

5. kapitulua: Ondare sarrerak

Udalaren jabetza-errentetatik datozen diru-sarrerak.



GASTUAK

Nora doaz?

1. kapitulua: Langileak

Zentroko langileen ordainsariak eta pertsona horiekin lotutako beste gastu batzuk: **Gizarte Segurantzaren kotizazioak...**, etb.

2. kapitulua: Ondasun korronte eta zerbitzu gastuak

Ondasun kontsumigarri edo erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzuetan egindako gastuak: **energia, ura, ordezeko piezak, adituen zerbitzu profesionalak, kontratazioak**, etb.

GASTUAK

4. kapitulua: Transferentzia arruntak

() Oharra:* 2021ean Euskara Zerbitzuaren kudeaketa Udalari, Kultura arloari, Hizkuntza Politika eta Hizkuntza Programan eskualdatzen zaio (adierazten diren zifrak informatzeko dira).

6. kapitulua: Inbertsio errealak

Erakundeak, batez ere, material inbentariagarria erosteko erabiltzen duen diru kopurua: **bitarteko elektronikoak, bulegoko ekipoa, etab.**

